

ENAP

Euskara Nafarroako Administrazio Publikoetan
[11. zk.] 2026ko maiatza

BOOMERANG OPERAZIOA

Migrazio kolektiboa
Australiara 50eko
hamarkadan

NAFAR BISONTEA

Nafarroako zerbitzu
arkeologikoen
egindako aurkikuntza

EUSKARAZKO XII. UNIBERTSITATE EZTABAIDA LIGA

Finala Nafarroako
Parlamentuan

BASOZAINAK

Nafarroako natura
aniztasunaren babesleak



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



euskarabidea



Emakumea monumentu megalitiko batean bermatuta, jalo topografiko baten ondoan. Aralar mendilerroko dolmen estazioa, 1914 eta 1920 urteen artean (Telesforo de Aranzadi eta Florencio de Ansoleaga Aralar mendilerroan 5 trikuharri induskatzen aritu ziren 1913tik aurrera). Argazkilaria: J. Altadill.

Mujer apoyada en un monumento megalítico junto a un jalón topográfico, perteneciente a la estación dolménica de la sierra de Aralar, entre los años 1914 y 1920 (Telesforo de Aranzadi y Florencio de Ansoleaga colaboraron en la excavación de 5 dólmenes en la sierra de Aralar a partir de 1913). Fotógrafo: J. Altadill.

ENAP

Euskara Nafarroako
Administrazio Publikoetan
[11. zk.] 2026ko maiatza

Koordinatzailea:

Euskara Administrazio
Publikoetan
Garatzeko Zerbitzua
(Euskarabidea)

Kolaboratzaileak:

Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua,
Nafarroako Memoriaren
Institutua, Nafarroako Artxibo
Irekia, Nafarroako Basozainak,
Ondare Historikoaren Zerbitzua,
Iruñeko Udala, HABE, Nafarroako
Parlamentuko prentsa zerbitzua

Diseinua: cobo-munarriz.com

Azaleko argazkia: Adimen
artifizialarekin sortua

Irudiak: Magnific

Argazkiak: Euskarabidea

ENAP aldizkarian argitaratutako
artikuluak berridatz daitezke bai
osorik, bai zatika, baina artikuluak
nondik atera diren aipatu behar
da beti.

ENAP aldizkariak ez ditu
derrigor bere egiten artikulu eta
kolaborazioetan agertzen diren
iritziak.

ISSN: 2697-0988

Egilea: Euskarabidea-Euskararen
Nafar Institutua
Paulino Caballero 13
31002 Iruña
Tel. 848 42 60 54
www.euskarabidea.es

AURKIBIDEA

4-7 Elkarrizketa:
Xanti Mayans

8-11 Erreportajea:
Bisontearen aurkikuntza

12-13 Gobernutik:
Emakumea eta memoria

14 Parlamentutik:
Euskarazko eztabaida liga

15 Udaletatik:
Irulegitik Pompelora erakusketa

16 Euskarabidetik:
Ingura plataforma

17 Hiztegi terminologikoa:
Arkeologia

18-21 Ohar historikoa:
Boomerang Operazioa

* Hurrengo aleetan parte hartu nahi baduzu, bidali zure proposamena
euskarabidea@navarra.es helbidera.

ELKARRIZKETA



XANTI MAYANS BASOZAINA

Basozain izateak oso lan desberdinak uztartzen ditu. Zer lan egiten dituzue?

Nafarroa oso desberdina da iparretik hegoaldera zein ekialdetik mendebaldera. Esan dezakegu Nafarroa oso aberatsa dela biodibertsitatean. Hau ikusita, gure lurraldea 13 demarkaziotan (zonaldetan) bananduta dago, beraz orokorreko lan batzuk demarkazio guztietan berberak egiten ditugu baina beste lan askok ezberdinak izango dira. Nere kasuan, Pirinioetako Zaraitzu-Erronkariko demarkazioan lan egiten dut eta azkar laburbilduz 9 gai ezberdinetan banandu ditzakegu gure lanak:

- 1- Basoko ustiapen gaietan; egurren eta zuraren markaketak, esplotazioen jarraipena (bertan begiratzen duguna da zuhaitzak lapurtzen dituzten ala ez, geratzen diren zuhaitzek marruskadurarik ez duten, erabiltzen dituzten makinariak lurrean edo bertako ibaietan kalterik sortzen dituzten ala ez), esplotazioen etetea edota salaketak, larreak hobetzeko baimentzen diren erreketak, erreketak ilegalen salaketak, etab.
- 2- Babestutako eremu naturalen zaintza eta jarraipena. Babestutako eremu batzuetan jarduera bakar bat ere ezin da egin, aldiz beste zenbait askotan bai. Egoera hauetaz guztiez arduratzen gara.

ELKARRIZKETA

- 3- Espezie ugariaren zentsuak; ugaztun, hegazti, arrain, landare, intsektu...
 - 4- Herrietako lehen sektoreko pertsonekin harremanak mantendu eta sendotzea. Garrantzi handia ematen diegu haragijale handien eta abeltzaintza estentsiboaren arteko harremanei. Ekosistemak hobetzeko eta mantentzeko, frogatuta dago abeltzaintza estentsiboa eta haragijale handiak funtsezkoak direla gure naturan.
 - 5- Ehiza eta arrantza. Ehiztari eta arrantzaleei inspekzioak egiten dizkiegu jarduera hauek ongi egiten dituzten ikusteko.
 - 6- Ingurumen delituen kudeaketak.
 - 7- Suteetan, suhiltzaileekin elkarlanean ibiltzen gara.
 - 8- Nafarroako SOS Larrialdiekin lan egiten dugu. Adibidez; galdutako pertsonen bilaketetan, errepideetan animalia ezberdin agertzen direnean sortzen diren egoerak, naturako hondakinak, suteak...
 - 9- Ingurumen hezkuntzako jarduerak.
- Ikusten denez gure lana ugaria eta anitza da.

Beti mendian zaudetela irudikatzen zaituztegu, hori horrela da?

Mendian asko egoten gara, eta bertan egiten dugun lan anitza oso garrantzitsua da, lehen aipatu dudan bezala, baina mendian gustatuko litzaigukeena baino gutxiago egoten gara. Gaur egun bulegoko eta ordenagailuko lanak geroz eta gehiago dauzkagu eta denbora handia bulegoan ematen dugu.

Zer dira basozain izateko behar diren trebetasunak, maila teorikoan (geografia, klima, erliebea...) zein praktikoan (tresneria, ibilgailuak...)?

Nire kasuan, txikitatik basozain lanetan aritu nahi nuela argi nuenez, ikaskuntza mailan, batxilergoa amaitu eta basozain izateko goi mailako



ELKARRIZKETA



heziketa egin nuen. Lanbide heziketako ikasketak bukatu ondoren, urte batzuetara basozainen oposaketak prestatu nituen eta ongi ateratzen zizaidan.

Praktika arloan, betidanik naturarekin harremanetan egon naiz. Osabek eta lehengusuek abereak dituzte eta beti laguntzen gabiltza, ehiza eta arrantza gustukoak ditut, ugaztun eta hegaztiekiko zaletasuna daukat eta mendian ibiltzea beti gustatu izan zait.

Hau guztia baturik, basozain izatea lortu nuen eta oso gustuko dudana da.



Herrietan asko egoten zarete, zuk Pirinioetan lan egiten duzu. Zein da Nafarroako basoen egungo egoera (naturaren egoera orokorrean)?

Nafarroa mailan, lehen esan dudana bezala, baso ugari, ezberdin eta aberatsak ditugu. Pirinio mailan, gauza bera, baina egoera hau gutxinaka aldatzen ari da. Kirol jarduerak ugaritzen ari dira (mendiko eskia, mendi lasterketak, eskalada, txirrindularitza, etab.) eta egoera hau kudeatu eta aldatu beharra dago. Argi eduki behar duguna da bertan espezie ugari bizirauten direla eta gure kasuan, aldiz, aisialdiko jarduerak direla.

Herriarrekin harreman zuzena izaten duzu? Nolako harreman hori?

Askotan gertuko harremanak eta zuzenak izaten dira. Gehienetan egoera hauek erosoak eta politak izaten dira baina beste batzuetan aldiz ez. Argi eduki behar duguna da profesionaltasunez jokatu behar dugula.

Eta animaliekin? Zer animalia aurkitu dituzu aurrez aurre? Arrisku egoeretan egon al zara? Zer motatakoak?

Animaliekin gauza bera, oso gertukoa, onerako eta txarrerako.

Nafarroako mendietatik mugitzean ohikoa da basurdeekin sustoren bat edukitzea.



ELKARRIZKETA

Batez ere kumeekin daudenean edo zauriturik daudenean. Halako egoerak arrisku handikoak dira eta hoberena lasaitasunez jokatzeko da. Kumeekin dagoen emea izugarri babeslea delako eta zauritua dagoen animalia bizirik jarraitu nahi duelako. Hoberena toki itxietan gaudenean ahotsa igotzea eta gure presentziaz ezagutaraztea da, horrela egoera hauek saihestu ditzakegu.

Batzuetan lan pedagogikoa ere egin beharko duzue. Zer dira herritarrek zuen arloari buruz dituzten zalantza ohikoenak?

Urtaro eta garaiaren arabera. Adibidez, udazkenean eta neguan ehiza arloan galdera ugari edukitzen ditugu. Udan aldiz basogintza arloko zalantzak.

Hor beti dagoena artzaren gaia izaten da, baina herritarren ikuspuntua asko aldatu da lehengo garaiarekin alderatuta.


Naturaren babesa zuen lanaren erdigunean dago. Zer mezu bidaliko zenioke gizarteari? Zer dira jakin beharreko gauza garrantzitsuak?

Nafarroan ekosistema eta espezie aberatsak ditugu eta denon arten zaindu eta mantendu behar ditugu. Eta berriz ere, argi eduki behar duguna da ekosistemetan espezie ugari biziratu direla eta guk aldiz aisialdiko jarduerak egiten ditugula. Baita ere, abeltzaintzaren garrantzia aipatuko nuke, herrien bertako ekosistemak mantentzen dituztelako.

Zure egunerokoan euskara erabiltzen duzu? Zure lanerako garrantzitsua dela uste duzu?

Bai egunero erabiltzen dut, bai taldekideekin bai zenbait herritarrekin. Baita ere Iparraldeko basozainekin harreman estua daukagu eta hauekin euskaraz eta frantsesez komunikatzen gara.

Lanerako, gure egunerokotasunerako, euskara garrantzitsua da, gure bertako hizkuntza baita. ■



Entrevista al Guarda de Medio Ambiente **Xanti Mayans** sobre sus variadas funciones y la importancia del **cuidado del medio ambiente**

ERREPORTAJEA



BISONTEAREN AURKIKUNTZAREN GARRANTZIA

Nafarroako ondare arkeologikoa Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak koordinatzen du. Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atalak kudeatzen du Nafarroako ondare arkeologikoa eta indusketen esparrua. Atal honetako lantalde hau langile hauek osatzen dute: hiru arkeologo, administrari bat, goi mailako teknikari zaharberritzaile bat eta atalburua.

Nafarroako Arkeologia Plan Estrategikoak (2024-2036), Nafarroako arkeologiaren egungo egoeraren diagnostiko sakon batean oinarrituta, ardatz hauek planteatzen ditu:

- 1. Katalogazioa:** ondare arkeologikoaren inbentariarako baliabideak gehitzea eta informazioa modu irekian argitaratuko dela bermatzea.
- 2. Babesa:** kultura intereseko ondasun berriak eta Inbentariatutako ondasun berriak deklaratzeko bost urteko programa bat bultzatzea. Metalen detektagailuen erabilera arautzea, hori baita espolioazioaren arrazoi nagusietako bat.
- 3. Kontserbazioa:** kultura intereseko ondasunen eta aztarnategi arkeologikoen kontserbazio-egoera ebaluatzea, urteko mantentze- eta kontserbazio-planak ezarri.
- 4. Kudeaketa:** Kultura Zuzendaritza Nagusiaren jardueri lehentasuna ematea eta aire

zabaleko aztarnategietako esku-hartzeak sustatzea, baita arkeologia-lanetatik eratorritako ekoizpen zientifikoa ere.

- 5. Zabalkundea:** ondarea zabaltzeko hitzarmen instituzionalak sustatzea, Arkeologia Biltegira bisita gidatuen programa bat bultzatzea eta argitalpen-ildo espezializatu berri bat garatzea.


- 6. Ingurune profesionala:** Nafarroan arkeologian diharduten enpresa eta profesional autonomoen erregistro ofiziala sortzea, sektorea antolatu eta indartzeko.

Inbentario Arkeologikoaren katalogazio-jarduerak eta arkeologia-jarduerak datu hauek erregistratu dituzte: 9.956 aztarnategi arkeologiko aurkitu dira Nafarroan. Inbentarioaren arloan Nafarroako Gobernuak eta bere erakunde autonomoek zuzenean egindako inbertsio arkeologikoa 1990-2020 aldian, 1.796.532 eurokoa izan da.

Erriberan eta Nafarroako Erdialdean ahalegin handiena egin da arkeologia katalogazio esparruan. Erriberan arkeologia inbentario osoa erregistratu da, eta gune eguneratu gehien dituen eremua da. Eskualde geografiko honetan, lehen katalogazioak egin ziren.

Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atalak hainbat aztarnategi kudeatzen ditu, eta bereziki batek sona handia

ERREPORTAJEA



hartu du azken hilabeteotan. Urbanan aurkitutako bisontearen ikerketak zeresana eman du. Datu ugari atera dituzte ikertutako eremu honetan.

Urbanan aurkitutako bisontea

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak sustatutako esku-hartze bati esker, 4000 urteko bisonte bat aurkitu dute Urbanan. Horretaz gain, historiaurreko beste animalia batzuen aztarnak aurkitu dituzte, hala nola, haitzuloetako lehoi bat.

Nafarroako lehendakariak eta Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak bisontearen hezurdura ia osoaren hondakinak aurkeztu zituzten Nafarroako Gobernuaren Arkeologia Funtsetan. Aurkikuntza Arrafela leizean egin zen, Urbasa eta Andiako Parke Naturalaren barruan. Aurkikuntza horretan, Euskal Herriko

Unibertsitateko eta Madrilgo Historia Naturalaren Museoko zientzialariek ere parte hartu dute.

Bisontearen eskeletoaren ale ia osoa da, erradiokarbonoz datatua, eta saihesten artean kobrezko gezi punta bat du. Horrek Kalkolitoaren amaieran kokatzen du aurkikuntzaren testuingurua (duela 4.000 urte inguru). Litekeena da bisonte europarra izatea, baina DNA analisien bidez baieztatzeke dagoen datua da. Nolanahi ere, aurkikuntza bakarra da Iberiar penintsulan; izan ere, bisonte europar baten aztarnak direla baieztatuz gero, bisonte mota horren lehen ebidentzia izango litzateke Iberiar penintsulan.

Ikerketa 2024an hasi zen, ikertzaileek hondakinak bobido arruntarenak ez zirela egiaztatu ondoren. Une horretatik aurrera, 2025eko urrian berreskuratu ziren hondakinen inguruko lanak hasi ziren.

ERREPORTAJEA



Esku-hartze berean eta leize berean haitzuloetako lehoi baten hondakinak aurkitu dira (*Panthera spelaea*), duela 12.000 urte inguru desagertutako espeziea, Nafarroan dokumentatutako hirugarrena (Abauntz eta Koskobilu aztarnategien ondoren) eta hondakin gehien ekarri dituena. Gainera, lira oilar baten eta harrapari baten aztarnak aurkitu dira, Nafarroako Historiaurreko faunaren ezagutza zabaltzen dutenak.

Aurkikuntzaren garrantzia

Hezurren azterketa morfologikoari esker, fosilak bisonte batekin (*Bison* generoa) lotu ahal izan dira eta *Bos* generoa denik baztertu egin da; hots, egungo behi-haziendari dagokiona (*Bos taurus*). Atariko azterketa metrikoaren arabera, Arrafelako leizean berreskuratutako bisontearen tamaina Europako bisonte arren (*Bison bonasus*) antzekoa da. Eskeleto hori estepako bisontearen fosilak (*Bison priscus*) baino txikiagoa da; espezie hori duela 9.000 urte inguru desagertu zen Eurasian. Europako bisontea dela dioen hipotesia testatzeko eta beste hipotesi batzuk baztertzeko, analisi genetikoak egiten ari dira.

Europako bisontea dela baieztatuko balitz, Iberiar penintsulan Europako bisontea izatearen lehen ebidentzia litzateke. Beste aukera bat da 'Clado X' izenekoa izatea, azterketa genetikoaren bidez ezagutzen dena. Hala ere, ez da klado horretako bisonteen anatomia ezagutzen, eta klado horretakoa dela baieztatuko balitz, espezie honetako eskeleto oso bat izango genuke lehen aldiz.

Gainera, erradiokarbono bidezko datazio batek bisonte hori kalkolitikoan kokatzen du; hots, duela 4.000 urte, gutxi gorabehera, eta, beraz, Iberiar penintsulako bisonte berriena izango litzateke. Datazio hori bat etorriko litzateke saihesten artean berreskuratutako metalezko gezi mutur batekin, eta horrek adieraziko luke inguruko biztanle kalkolitikoak animalia hori ehizatzen saiatu zirela, eta leizera erori eta hil egin zela.

Aurkikuntza berri horren arabera, Nafarroako kalkolitikoek orain arte ezagutzen zirenak baino animalia-espezie gehiagorekin harremana izango zuten, eta kronologia horietako bilduma arkeologikoak berrikusteko beharra zabaltzen du, duela 4.000 urte inguruko nekazari eta abeltzainek ehiza zitezkeen ale berriak detektatzen saiatzeko.

Ikerketa lanak

Orain arte, laborategiko hainbat lan burutu dira: hezurak garbitzeaz gain, aurretiazko inbentarioa egin da, eta bisontearen azterketa metrikoa egiten hasi dira. Gainera, laginak hartu dira banako horren azterketa genetikorako eta zer jaten zuen aztertzeko. Modu horretan, diziplina anitzeko azterketa bat jarri da abian, hondakin fosil bikain horien xehetasuna aztertu ahal izateko.

ERREPORTAJEA

Arrafelako leizean berreskuratutako hondakin arkeo-paleontologikoen ikerketan Jesus Garcia Gazolaz arkeologoak (Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundea) eta Asier Gomez Olivencia paleontologoak (Euskal Herriko Unibertsitatea) koordinatzen dituzte, eta diziplina anitzeko eta nazioarteko ikertzailetalde bat ari da lanean.

Bisontearen, lehoiaren eta hegaztien aztarnak Cordovillako Funts Arkeologikoetan eta Euskal Herriko Unibertsitatean aztertuko dira. Ikerketa-taldeak laginak hartu ditu hainbat laborategitara eramateko: Vienako Unibertsitatea, DNA zaharraren kasuan, eta Kantabriako Unibertsitatea, paleo-dietarako isotopoen kasuan. Hondakin fosil batzuk oso hauskorak direnez, zaharberritu egin behar dira, azterketa zehatza osatu aurretik, eta hori Nafarroako Arkeologia Funtsetan egingo da.

Bisontearen garezurra 3D formatuan berreraikiko da, gordetako zatiekin, eta lan horiek Nafarroako Mikel Arlegi paleontologoak koordinatuko ditu.

Aipatutako azterketa horiez gain, gehiago egingen dira, eta 6 eta 12 hilabete artean beharko dituzte ikerketa osatu ahal izateko.

Nafarroako ondare paleontologikoa

Aurkikuntza honek Nafarroako ondare paleontologikoa aberastu du beste behin. Horretaz gain, Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundeak honako esku-hartze hauek sustatu ditu: Lantzen egindakoak, Loizun Kantabriako Unibertsitatearekin elkarlanean egindakoak, Intzartzetan (Larraun), Mendukilon (Astitz) edo Alkerdi Zan (Urdazubi) eta Mezein 26an (Aralar mendilerroa) UPV/EHUrekin lankidetzan egindakoak, edo azken erakunde horrek desagertutako Koskobilu I aztarnategiko hondakin paleontologikoei buruz berriki sustatu dituen ikerketak (Olazti; Nafarroako Kuarternarioko aztarnategirik zaharrena;




besteak beste, errinozerontek, makakoak eta hartz beltz tibetarra), edo Maineakoak (Uitzi; Iberiar penintsulan hotzera egokitutako animalien kopuru handienetakoa, 5 errinozeronte iletsu eta mamut batekin).

Esku-hartze eta ikerketa horiek guztiek agerian utzi dute jarduera espeleologikoen ikuspegi zientifiko bat izan behar dutela, lurpeko ondare hauskorra ezagutzeko eta kontserbatzeko funtsezko elementu gisa. Era berean, garrantzitsua da barrunbe eta leizeetako jarduerak antolatu eta koordinatzea, arautu gabeko praktika espeleologikoa iraganean arriskuak sortu baititu hondakinak osorik mantentzeko. ■



Reportaje sobre las excavaciones arqueológicas que realiza el Gobierno de Navarra y el reciente hallazgo de los restos de un bisonte

EMAKUMEA ETA MEMORIA

ES EU 

ERREIBINDIKAZIOA

EMAKUMEEN BORROKA BEREN TOKIAREN ALDE, GIZARTE KONTSERBADORE BATEAN


ERREPRESIOA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA, 1936KO KOLPE MILITARRAREN ONDOREN

ERRESISTENTZIA(K)

EZ SOILIK BIKTIMA. DIKTADURAREN ETA IZUAREN AURKA ERRESISTENTZIAN ARITURIKO EMAKUMEA

TXOSTENA

Deskargatu txostena 

ERREPRESALIAUAK

Kredituak



EMAKUMEA eta MEMORIA erakusketa birtuala

Nafarroako Gobernuak **“Emakumea eta Memoria”** erakusketa birtuala jarri du ikusgai, Gema Pierola Narvarte historialariak egindako txosten batean oinarrituz. Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak sortu du erakusketa, Memoriaren Nafarroako Institutuaren eta Memoriaren eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez.

Erakusketaren helburua emakumeek frankismoaren aurka jokatu zuten papera ikusaraztea da, belaunaldi gazteenei bereziki. Hiru ardatzetan egituratzen da: erreibindikazioa, errepresioa eta erresistentziak.

Erreibindikazioaren atalean, XX. mendeko lehen hamarkadetan emakumeek etxetik kanpoko lanetara egin zuten jauzia, agertoki politikoan jokatu zuten papera eta emakume kapelugabeen (“sinsombrero”) fenomenoaz azaltzen dira.

Errepresioaren atalean, berriz, erregimen

frankistaren errepresio-aparatu gogorraren eragina, emakumeen aurkako indarkeria espezifikoak eta erregimenak sustatu zuen emakume idealaren ereduak lantzen dira.

Erresistentzien atalak lau ildo garatzen ditu: diktaduran emakumeek ehundutako elkartasun sareak, emakume borrokalariak, erresistentzian jokatu zuten rola eta desobiratze goiztiarretan eta memoriaren aldarrikapenean izan zuten papera.

Hau dena azaltzeko, dokumentu historikoak, argazkiak eta lekukotasunak jasotzen dira erakusketan, baita hainbat emakumeren biografiak ere.

Aipatu ditugun hiru atalez gain, erakusketaren oinarria izan den txostena eta Nafarroako Gobernuak **“Emakumea eta Memoria”** erakusketa birtuala jarri du ikusgai, Gema Pierola Narvarte historialariak egindako txosten batean oinarrituz. Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak sortu du erakusketa,

Maravillas Lamberto



Memoriaren Nafarroako Institutuaren eta Memoriaren eta Bizikidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez.

Erakusketaren helburua emakumeek frankismoaren aurka jokatu zuten papera ikusaraztea da, belaunaldi gazteenei bereziki. Hiru ardatzetan egituratzen da: errebindikazioa, errepresioa eta erresistentziak.

Errebindikazioaren atalean, XX. mendeko lehen hamarkadetan emakumeek etxetik kanpoko lanetara egin zuten jauzia, agertoki politikoan jokatu zuten papera eta emakume kapelugabeen ("sinsombrero") fenomenoazaltzen dira.

Errepresioaren atalean, berriz, erregimen frankistaren errepresio-aparatu gogorraren eragina, emakumeen aurkako indarkeria espezifikoa eta erregimenak sustatu zuen emakume idealaren eredu lantzen dira.

Erresistentzien atalak lau ildo garatzen ditu: diktaduran emakumeek ehundutako elkartasun sareak, emakume borrokalariak, erresistentzian jokatu zuten rola eta desobiratze goiztiarretan eta memoriaren aldarrikapenean izan zuten papera.

Hau dena azaltzeko, dokumentu historikoak, argazkiak eta lekukotasunak jasotzen dira erakusketan, baita hainbat emakumeren biografiak ere.

Aipatu ditugun hiru atalez gain, erakusketaren oinarria izan den txostena eta errepresaliatutako emakumeen zerrenda ere ikusgai daude.

Esan bezala, erakusketaren helburua herritarrei XX. mendeko lehen hereneko Nafarroako gizartean emakumeek izandako papera ezagutaraztea da. Atari honek badu beste helburu bat ere: emakume errepresaliatuen eta erresistenteen lekua izatea, dagoeneko argitaratu diren eta etorkizunean argitaratuko diren lanak bilduko dituena.

Memoriaren Nafar Institutua

Nafarroako Memoriaren Institutua 2018an sortu zuen Nafarroako Gobernuak, memoriaren politika publikoak kudeatzeko helburuz. Hauek dira bere eginkizun nagusiak: memoriaren ondarea kontserbatzea Nafarroan, Nafarroako herritar guztiei Nafarroako memoria demokratikoaren berri ematea eta herritarrei ondare memorialistarako irispidea ematea.

Oroibidea, berriz, indarkeria eta errepresio ezberdinen inguruko biktimak biltzen dituen ataria da. Hasieran bilatzaile bibliografiko gisa sortu zen, eta gaur egun 161 elkarrizketa eta 1.235 pasarte jasotzen dituen portala da. ■



"Mujer y memoria" es una exposición virtual que quiere dar a conocer el papel de las mujeres en la resistencia antifranquista. Se basa en un trabajo de la historiadora Gemma Piérola Narvarte.

PARLAMENTUTIK

Euskarazko XII. Unibertsitate Eztabaida Liga Nafarroako Parlamentuan



Euskarazko XII. Unibertsitate Eztabaida Ligaren finala Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuren aretoan egin zen azaroan. Nafarroako Unibertsitate Publikoak Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera eta Nafarroako Parlamentuarekin elkarlanean egindako ekimena da.

Eztabaida liga hauen bidez hainbat helburu lortzen dira: ahozotasuna lantzea, besteen iritziak entzuten ikastea, estrategia diskurtsiboak lantzea, argudioak arrazoitzea edo beste ikastetxe batzuetako ikasleak elkar ezagutzea.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) banakako hitzaldia irabazi zuen, eta Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) taldeen arteko eztabaidan irabazi zuen.

Zehazki, Lorea Aznar Pizarro NUPeko Zuzenbideko graduiko ikasleak irabazi zuen banakako hitzaldian, eta giza eskubideak edozein kulturataraz modu unibertsalean estrapolatzeko aukera izan zen hizketagaia. Joseba Zarragoitia Murua Euskal Herriko Unibertsitateko ikaslearekin aritu zen lehian.

Taldeen arteko eztabaidari dagokionez, honako hauek osatu zuten eztabaida irabazi

zuen Euskal Herriko Unibertsitateko taldea: Iker Gómez García, Nora Morales Fernández, Hodei Pérez Martínez eta Eneko Rosado Arenosa. NUPeko taldeari irabazi zioten, zeina honako hauek osatu baitzuten: Arianna Agostini Aizpún, Amaia Echeverria Quevedo eta Lorea Aznar. Txapelketaren modalitate horretan, eztabaidagaia izan zen ea eraginkorra den alokairuaren prezioak mugatzea tentsio handiko eremuetan etxebizitza eskuratzea bermatzeko.

Unai Hualde Nafarroako Parlamentuko presidentea eta Álvaro Baraibar NUPeko

Irakaskuntzako Errektoreordetzako Hizkuntza Plangintzaren arloko zuzendariak banatu zituzten unibertsitate arteko eztabaida-lehiaketaren edizio honetako diplomak.

Gainera, ekitaldian izan dira Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko parlamentariak, Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea eta Irma Basterra eta Xabier Ezeizabarrena Arabako eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako presidentek, hurrenez hurren. ■



La final de la XII Liga de Debate Universitario en euskera se celebró en el Salón de Plenos del Parlamento de Navarra



Erakusketa honek Iruñeko historiaren une erabakigarri bat erretratatu nahi du, gure aroaren aurreko I. mendean baskoiak Erromako Errepublikan sartu zirenekoa. Ordura arte, lurraldea herri gotortuetan antolatuta zegoen; Irulegikoa, esaterako, nekazaritza, abeltzaintza eta metalurgiako gune dinamikoa zen.

Erakusketa Sertorioren gerraren (gure aroaren aurreko 82-72. urteetan) testuinguru historikoan kokatzen da: herri erromatarraren arteko guda zibila izan zen, eta baskoien lurraldeari eragin zion. Hori dela eta, Irulegi herrixka baskoia bortizki suntsitu zuten, eta sute baten ondorioz desagertu zen, hainbat urtez induskatutako ebidentzia arkeologikoez frogatu moduan.

Gerra-material ugari aurkitu dira indusketetan, Irulegiko herritarrak gerran bizi zirela adierazten dutenak. Hain zuzen ere, objektu hauek daude ikusgai: sastakaia eta zorroa, habaila-jaurtigaiak, gezi-punta ugari, etab. Banakako armak dira, eta soldadu erromatarrenak izaten ahal ziren, baina baita gudari baskoienak ere, gerra zibil horretan armada laguntzailearen parte baitziren.

Gainera, herrixkaren egunez eguneko bizitzarekin lotutako piezak daude ikusgai, eta abeltzaintza, metalurgia, buztzingintza eta idazketarekin lotutako jakintzak zituen komunitate horren errealitatera hurbiltzeko aukera ematen diote bisitariari. Ikusgai jarriko dira, besteak beste, brontzezko pitxer bat eta Burdin Aroko apaingarriak eta zeramika-

“Irulegitik Pompelora. Hiri baten jatorriak” erakusketa



piezak. Material hauek guztiak bi kulturen arteko uztarketa islatzen dute, herrixka baskoian bizi zirenen kultura indigenaren eta lurraldera iritsi zen kultura erromatarraren artekoa, hain zuzen ere.

Erakusketan zehar, txanpon eta idazkeraren garrantzia azpimarratzen da, gure aroaren aurreko III. eta I. mendeen artean erromatarren munduan sartu zirenean baskoien lurraldea eraldatu zutenak.

Pompeio jeneralak Pompelo hiria sortu zuen, ‘globalizazio’ eragile nagusi bezala jokatu zuen hiri eredu berria azkartuz. Latina hizkuntza ofizialtzat nagusitu zen, hizkuntza indigena gehienek desagertzea eraginez; hala ere, baskoniar-akitaniarrak irautea lortu zuen.


Irailaren 27ra arte egongo da ikusgai, Iruñeko Civiox Pompeloko erakusketa areto nagusian. ■

La exposición “De Irulegi a Pompelo. Los orígenes de una ciudad” redescubre la influencia romana en el poblado vascón de la Pamplona del siglo I antes de nuestra era.

EUSKARABIDETIK

INGURA:

euskara online ikasteko ingurune digitala



Ingura euskara sarean ikasteko plataforma digital aurreratua da, edonork edozein gailutatik, noiznahi eta nonahi, euskara eroso eta malgu ikasteko sortua. EUSGUNEAK proiektuaren baitan garatu da eta bertan hiru erakunde publikok parte hartu dute: Nafarroako Gobernuak, Euskarabidearen bidez; Eusko Jaurlaritzak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta HABEren bidez; eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak. Proiektuak % 65eko laguntza jasoko du Europar Batasuneko Interreg programaren POCTEFA-AFOMEF deialditik.

Inguraren bidez edozein herritarri euskara ikasteko aukera eskaintzen zaio. Metodoak oso egitura argia du eta azken aurrerapen pedagogiko eta teknologikoak barne hartzen ditu. Trebetasun guztiak lantzeko aukera ematen du jarduera ugariren bidez. Jarduera guztiak egin ahal izateko, euskaltegi edo autoikaskuntza gidatuko zentro batean izena eman beharko du ikasleak; modu librean ikastea aukeratuz gero berriz, jardueren erdia izanen du eskuragarri.

Ikas-unitate guztiak egitura bera dute: abiapuntua den egoera-bideo bat eta

autozuzenketa duten gramatika, hiztegia, mintzamena eta kultur edukiak lantzeko jarduerak. Erabiltzaile orok du jarduera hauek egiteko aukera. Euskaltegi edo autoikaskuntza gidatuko zentro batean matrikulatutako ikasleek, berriz, jarduera gehigarriak izanen dituzte eta tutore baten laguntzaz ikasiko dute.

Helduen euskalduntzerako oinarrizko curriculumaren ildo metodologikoei jarraikiz sortu dira ikastaroak. Gaur egun A1 eta A2 mailetako ikastaroak daude ikusgai eta A1 mailaren egiaztatzea ere egin daiteke. Pixkanaka C1 mailara arteko ikastaroak eskaintzea da asmoa.

Ingurune eleanitza da, argibideak eta azp tituluak lau hizkuntzatan baititu eskuragarri: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. ■


INGURA es una plataforma digital avanzada, pensada para que cualquier persona pueda aprender euskara con comodidad y flexibilidad, desde cualquier dispositivo. De momento están disponibles los niveles A1 y A2.

HIZTEGI TERMINOLOGIKOA

ARKEOLOGIA ~ ARQUEOLOGÍA

Antropizazioa	Antropización
Arkeografia	Arqueografía
Artefaktua ≠ Ekofaktua	Artefacto ≠ Ecofacto
Aurkikuntza	Hallazgo, descubrimiento
Azterna, hondakina	Rastro, resto, vestigio
Azternategi	Yacimiento
Bioestratigrafia	Bioestratigrafía
Bioklastoa	Bioclasto
Brontze Aroa	Edad del Bronce
Burdin Aroa	Edad del Hierro
Datazioa	Datación
Denbora geologikoa	Tiempo geológico
Dendrokronologia	Dendrocronología
Eneolitoa	Eneolítico, Calcolítico
Espoliazioa	Expolio
Estratua, geruza	Estrato
Faltsifikazioa	Falsificación
Flotazio laginak	Muestras de flotación
Fosila	Fósil
Glaziazioa	Glaciación
Harri Aroa	Edad de Piedra
Historiaurrea	Prehistoria

Holotipoa	Holotipo
Holozenoa	Holoceno
Indusketa	Excavación
Izotz aroa	Periodo glacial
Karbono 14, erradiokarbonoa	Carbono 14, radiocarbono
Kota	Cota
Kuaternarioa	Cuaternario
Maskortegi	Conchero
Mesolitoa	Mesolítico
Metakina	Depósito
Miaketa, prospekzioa	Prospección
Neolitoa	Neolítico
Oinplanoa	Planta
Osteologia	Osteología
Paleolitoa	Paleolítico
Paleozorua	Paleosuelo
Pleistozenoa	Pleistoceno
Sareta metodoa	Método de rejilla/ cuadrícula
Sedimentua	Sedimento
Zundaketa	Sondeo
Zutabe estratigrafikoa	Columna estratigráfica



OHAR HISTORIKOA



Boomerang Operazioa

XX. mendeko 50eko hamarkadaren amaieran, hainbat herritako dozenaka gizon-emakumek Nafarroa utzi eta erabat ezezaguna zen herrialde batera joateko hautua egin zuten; Australiara hain zuten ere. Emigrazio kolektibo hura Boomerang Operazioa izenarekin ezagutu zen. Nafarroako Gobernuaren erakusketa birtual baten bidez haien bitzta markatu zuen esperientzia ezagutu daiteke, eta haien testigantzetan eta funts pertsonaletan oinarrituta dago.

XX. mendeko berrogeita hamarreko hamarkadako Nafarroako gizartearentzat Australia lurralde urrun bezain ezezaguna zen. Hala eta guztiz ere, dozenaka gizon

eta emakumek euren bitzta aldatuko zuen abentura batean murgiltzea erabaki zuten, etorkizun hobe baten bila. Bidaia prestatzea izan zen bide luze baten lehen urratsa.

Australiara bidaiatu zutenek askotariko arrazoiak izan zituzten, euren testigantzek hala islatzen dute. Batetik, oparotasun ekonomikoaren irrika, nahiz eta hasierako egoerak ez ziren beti berdinak izan. Bidaia honetan barneratzea erabaki zuten batzuek Nafarroan hobetzeko aukera murriztak zituzten, eta aldaketa baten bila joan ziren. Beste batzuen kasuan, arrazoi ideologikoengatik erabaki zuten Australiara joatea. Beste lekukotza batzuek lur berriak ezagutzeko eta

OHAR HISTORIKOA

abenturari bidea irekitzeko nahia agertzen dute.


Bidaiatzea erabaki zutenek lehen zailtasunak aldez aurreko kudeaketa lanetan aurkitu zituzten. Era berean, osasun-azterketak egin zizkieten, eta elkarrizketatutako pertsonetako batzuek nolabaiteko atsekabez gogoratzen dute hori, tratuan euren duintasuna urratu zitzaielako. Familiaren jarrerari dagokionez ere, askotariko egoerak pairatu zituzten. Batzuek familiaren sostengua izan zuten hartutako erabakiarekin, baina beste batzuek ez zuten horrelako babesik izan familian. Nolanahi ere, familiako loturak ez hausten saiatu ziren.

BIDAIA

Lehenengo bidaiak itsasontziz egin ziren, eta hilabete baino gehiago irauten zuen; Australiara zihoazen hainbat herrialdetako pertsonekin partekatzen zuten bizipena. Aurrerago, bidaiak hegazkinez egiten zituzten.

Itsasontziz egindako ibilbideek ez zituzten beti bide berdinak egin. Gehienak Mediterraneotik eta Suezko kanaletik joan ziren Itsaso Gorrira pasatzeko, eta hortik, Indiako Ozeanotik Australiarantz. Baina izan ziren Atlantikotik bidaiatu eta Indiako Ozeanora Esperantza Oneko lurmuturretik (Hegoafrika) heldu zirenak ere. Egoerak hobera egin zuen hegazkinez egindako bidaiak orokortu zirenean.

Bidaia luze batzuetan, itsasontzietan istiluak gertatu ziren, batzuetan talde desberdinen artean, eta beste batzuetan bidaiaren baldintzengatik. Lekukotza batzuek matxinada gisa aipatzen dituzte istilu horiek, baina ez dirudi batek ere ondorio larririk izan zuenik.



OHAR HISTORIKOA

AUSTRALIAKO
BIZIPENAK

Australiara iristea ez zen erraza izan migrazio prozesu honetan parte hartu zuten gehiengoarentzat. Herrialde ezezagun bat, hizkuntza ezberdin bat, behin-behineko ostatu bat eta zenbaitetan baldintza eskasak...

Australiako administrazioak ere gogorarazten zien emigranteak zirela, eta bete beharreko arauak otoitarazten zizkieten.

Beranduago heldu ziren pertsonak jada han zirenen babesa aurkitu zuten.

“Bery” izeneko barrakoiak izan ziren nekazaritza lanetan ibili behar zutenen ohiko bizileku, batez ere azukre-kanaberan. Batzuetan, ostatu hori aldi baterako izaten zen edo sasoikoa. Familia horien egoera ekonomikoak hobera egin ahala, etxebizitzek ere hobera egin zuten. Etxebizitza horietako



asko familia bakarrekoak ziren hiriguneetan, eta batzuetan beraiek eraikitakoak.

Eskakizun fisiko handiko lanak egin behar izan zituzten, hala nola azukre-kanabera edo tabakoa, eta baita eraikuntzan ere. Gutxik izan zuten bestelako aukerarik, merkataritzan aritu ziren batzuk ere badira. Gainera, labore horiek eremu isolatuetan eta biztanle gutxi zegoen eremuetan izaten zen. Familia argazkietako askok lan eszenak jasotzen dituzte baldintza gogor horietan. Laneko eszena gehienetan gizonezkoak bakarrik agertzen diren arren, emakumezkoek ere lana egiten zuten.

Bidaiari gehienak gazteak ziren. Haietako asko ezkondu gabe zeuden, eta Australian ezkondu ziren. Beste batzuetan, Nafarroan ezkondu ziren, emigratu aurretik. Kasu batzuetan, lehenengo gizonak joan ziren, eta handik emaztegaiak erreklamatu zituzten ezkontzeko. Egoera sorta zabal horren barruan bada izendatzaile komun bat: bikoteak ia eksklusiboki migratzaile komunitatearen beraren barruan sortu ziren.

Familia-albumek denbora pasa ahala eraldaketa erakusten dute. Hasieran, aisialdiko eszenak oso lotuta daude emigratu zuten



OHAR HISTORIKOA



pertsonak bizi ziren landa-ingurunearekin. Pixkanaka, baldintza ekonomikoak hobetu ziren, eta aisialdiko beste jarduera batzuetako irudiak agertzen dira, hala nola arrantza, bidaiak, hirietara egindako bisitak, kirol-ekitaldiak...

Australia, herrialde garatua, eta Espainia frankistaren arteko kontrastea oso nabaria izan zen. Modu esanguratsuan eragin zien bertara joan zirenei. Elkarrizketatutako pertsonak honako gai hauek aipatzen dituzte, besteak beste: kontsumo-gizarte baten garapen ekonomikoa (horrek ere soldata hobeak ekartzen zituen), eta askatasun-maila handiagoa, ez soilik politikoa, baita soziala ere. Bizimodua eta egoera bestelakoak ziren; etxebizitzak, Sidney bezalako hiri aurreratuera egindako bisitak, kontsumo-objektuak eta, batez ere, kotxea. Automobila, Nafarroan oso gutxi hedatua zegoen; Australiaren kasuan, askoz ere ohikoagoa zen horrelako ibilgailu bat izatea.

ITZULERA

Joatea ez zen erabaki erraza izan, ezta itzultzea ere. Baziren behin betiko Australian geratzea erabaki zutenak ere. Beste batzuek, aldiz, euren jaioterrira itzultzea erabaki zuten egoera ekonomiko hobe bat lortu zutenean. Han geratzea erabaki zutenek, hala ere, beti izan zuten Nafarroarekiko harremana eta lotura. ■



*A finales de los años 50 del siglo XX, varias familias de diversas localidades abandonaron Navarra para dirigirse a un país totalmente desconocido: Australia. Aquella emigración colectiva se conoció con el nombre de **Operación Boomerang**.*

**Nahi baduzu,
nirekin euskaraz**

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua 2020

Mahaian jartzeko
identifikatzailea nahi baduzu,
idatzi helbide honetara:

plangintza@navarra.es

**Anima zaitetz ENAP aldizkariaren
hurrengo zenbakietan parte hartzera,
zure ekarpenak eskertuko ditugu!**

itzuli
Itzultzaile neuronala

- Itzultzaile automatikoa baliagarria da testuak ulertzeko.
- Testuak sortzean, ezinbestekoa da emaitza errepasatzea.



Agurra ele bitan egiteak euskarazko elkarrizketa errazten du:
"Egun on, buenos días"

euskarabidea

Euskarabidea -
Euskararen Nafar Institutua

www.euskarabidea.eus



Paulino Caballero, 13
31002 Iruña
848 42 60 54
euskarabidea@navarra.es

Gobierno de Navarra Nafarroako
Gobernua

EUSKARABIDEAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK:

- Itzulpengintza: Itzulpenflow eskatzaileen bidez.
- Hizkuntza aholkularitza.
- Aldibereko interpretazioa.
- Euskara maila egiaztatze probak.
- Euskara ikastaroak.
- Euskararen liburutegi espezializatua.



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



euskarabidea